

Subiranotasuna auzitan: Rousseau eta Hardt & Negriren pentsamenduan

Ekain De Olano Martinitz-Xil

Zientzia Politikoetako eta Administrazio Publikoko graduatua, UPV/EHU

Jarraian aurkeztu dugun iruzkinean estatuaren teorian problematikoa den subiranotasunaren kontzepzioa aztertuko dugu Rousseauen eta Hard eta Negriren ikuspegitik. Autoreek ezagutaraztera ematen duten subjektua zein den jakinda, horrek egiten duen boterearen erabileraren nolakotasuna dela-eta ezaugarritzen diren subiranotasun-ereduak alderatuko ditugu. Izan ere, Rousseauk subjektu subirano gisa herria proposatzen duen bitartean, Hardt eta Negri jendetza deituriko subjektu ez-subiranoa aurkezten digute. Hori horrela, modernitate postmodernitate doan tartean, subiranotasunaren kontzepzioa bezalako kategoriazaharrak baldintza aldakorretara egokitzeko gaitasuna aurkitzen saiatuko gara, eta, horrela, pentsamendu politikoan sorten diren esanahien bariazioa frogatuz, nukleo esanguratsua nola mantentzen den aztertuko dugu.

GAKO-HITZAK: Subiranotasuna · Jendetza · Komunaren demokrazia · Rousseau · Hardt eta Negri · Boterea.

Sovereignty in question: In the thought of Rousseau and Hardt & Negri

In the following commentaries based on the point of view of Rousseau, Hardt and Negri we will examine the concept of sovereignty, which is problematic in the theory of state. Knowing the subject that the authors reveal, we overturn the models of sovereignty that are characterized by the quality of the use of power by them. In fact, while Rousseau proposes the people as a sovereign subject, Hardt and Negri present us a non-sovereign subject. In this way, we will try to adapt old categories such as the conception of sovereignty to the changing conditions own of the period which goes from modernity to postmodernity, thus demonstrating that besides the variation of meanings inside the political thought, still remains a significant nucleus.

KEY WORDS: Sovereignty · Crowd · Democracy of the common · Rousseau · Hardt and Negri · Power.

Autoreen aurkezpena

Jean Jacques Rousseauk *Emilio* eta *Gizarte hitzarmena*, aitorpen gehien izan zuten lanak, idatzi baino lehen, *Zientzia eta arteari buruzko diskurtsoa* eta *Desberdintasunaren sorrera eta oinarriari buruzko diskurtsoa* idatzi zituen. Lehenengo diskurtsoarekin, aurrerapenari kritika eginez, balio etiko eta moraletan ez dela aurreratu ondorioztatu zuen, nahiz eta ezagutzen asko aurreratu. Hortik abiatuta, bere pentsamendua ezaugarritzen duen «basati ona»ren ideia ezagutaraztera eman zuen. Hori horrela, pentsalari erromantikoa kontsidera dezakegu.

Michel Hardt Literaturan katedraduna eta Ipar Carolinako Duke Universityn Italiar Ikasketetako irakaslea da. Antonio Negrik, filosofo eta teoriko politikoak, hirurogeiko hamarkadan ezkerreko korrante ortodoxoa alboratuz, marxismoa 68ko maiatzak azaleratutako errealtate berrira egokitzeke bere lehenengo ahalegin teorikoak abiatu zituen. Hortik aurrera, *Langile masatik langile sozialera* liburua idatzi zuen; bertan subjektu berri baten inguruan teorizatu zuen, «jendetza»ri lehenengo erreferentziak eginez.

1. Sarrera

Mundu berri baten aurrean aurkitzen gara; baina mundua deskubritzera ausartzen ziren esploratzaileak ez bezala, mundu berri honek gu deskubritu gaitu. Bilatzera joan ez garen mundu berri bat gure begien aurrean eta ezagutzen ez genituen fenomenoak aurkeztu dizkigu. Hara, arrotza egiten zaigun mundu batean aurkitzen gara, zeinean ezagutzaren, demokraziaren, naturaren edota eskubideen arloetan zalantzak gero eta ugariagoak egiten diren. Arlo horietan pertsonok aurrera egin ahal izatea ahalbidetu duten teknologiek, zentzu zabal batean ulertuta, beharrezkoa den ziurtasuna eskaini digute. Baina, hain justu, mende bat baino gehiago iraun duten ziurtasun zientifikoak egun kolokan daude. Izan ere, giza aurrerapena gidatu duten teknologiek sorrarazitako gehiegizko esperantza, gaur egun mesfidantza, beldurrak, distopiak eta tristurak osatutako kaosak kolpatzen du; ondorioz, mundu ezezagun bat ezagutaraztera eman da.

Hain zuzen, helburu goren baten mesedetan bizitza emateko prest egotea exijitzen zuen giza iraultza batenganako esperantza alboratu duen mundua da; non eta, ongizate indibidualen mesedetan, biolentzia soilik hiltzera behartzen duten interes ilunetara erbesteratu den. Mundu berri hau argiztatzeko duen eguzkia ez da iraultzarena, baizik eta itsugarria den nihilismo negatibo eta autosuntsitzailearena. Lan honek erreferentzia egiten dien ziurgabetasunei subiranotasunaren inguruan sortutako zalantzena da.

Gaur egun ikus dezakegu nola herriak marrazten duen perimetroa indar imminente ezberdinen bitartez zeharkatua den, batez ere kapitalaren bitartez; edozein estatu-muga gaindituz, sekulako kaosa inposatzen du orain arte inoiz definitu gabeko espazio publiko bat hondatuz. Horrek ezagutzen dugun subiranotasuna ezeگونkortu du.

Ikerketa-lan hau Rousseauaren pentsamendutik abiatu badugu, subiranotasunaren aferan paradigmatikoa bihurtu den mapa kontzeptual bat eskaintzen digulako izan

da. Izan ere, autore horrek gizakiaren izaera naturalean aurkitzen den ontasunari apelatuz, bizitza soziala kudeatzeko, pertsonak sinatzen duten kontratu soziala teorizatu zuen.

Kapitalaren mesedetan altxatu diren elite ekonomikoek herriari erabakitzeko gaitasuna nola kendu dioten ikusi dugu; hala, kontratu soziala hautsi da. Gaur egun, pertsonok elkarrekin egotea ahalbidetzen digun errealitate politikoa elite ekonomikoek gogor kolpatzen dute.

Hori horrela, elkarrekin egoteko eta arazo publikoak konpontzeko bestelako bizitza-ereduak erreproduzituko dituzten eruedetan pentsatzeko Hardt eta Negriengana jo dugu. Izan ere, subiranotasunaren inguruko paradigma berri baten beharrean, autore horiek subiranotasuna behar ez duen jendetza bezalako subjektu batera bideratzen gaituzte; hau da, bizitza politikoa sortzeko estatuak eskaintzen duen ziurtasuna behar ez duen subjektu bat.

Hori horrela, mende berri honetan, geure buruari galdetzen diogu subiranotasuna zenbateraino aldatu den, horren beharrik ez daukan jendetza bezalako subjektu batean pentsarazteko. Zentzu horretan, hauek dira lan honetan zabaltzen ditugun galderak: Non aurkitzen da gaur egun subiranotasuna eta non ez? Bestelako subiranotasun batean pentsa daiteke?

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu Rousseuren obrak islatutako pentsamendu politikoan aurkitzen diren ideiek gaur egungo sistema politikoak inspiratzen dituztela. Haien eragina estatu askoren konstituzioetan agerikoa egiten da: «Bere subiranotasuna erabiliz, bere borondatea aldarrikatzen du...»¹ edota «subiranotasun nazionala Espainiako herrian datza, eta hortik sortzen dira estatuaren botereak»². Teoria politikoan subiranotasun-kontzeptua autore askoren obretan aurkitzen bada ere, borondatearen bitartez egiten den subiranotasunaren ezaugarritzea Rousseuren influentzia da. Hain zuzen borondateak kontzientzia bati egiten dion erreferentzia. Hori, Rousseuren pentsamendu politikoaren bigarren bereizgarri bat da; izan ere, estatuaren botereak herriak legitimatzen ditu. Azkenik, esan genezake boterearen legitimazioa prozesu demokratikoari esker lortzen dela; izan ere, konstituzioaren helburua «gizarte demokratiko aurreratua ezartzea»³ da; edota, beste modu batean esanda, herri burujabe bat eraikitzea.

Ikus dezakegunez, demokraziak subiranotasunaren eta herriaren arteko harremana ixteko joera duen elementua da. Izan ere, bi kontzeptuen arteko harremana, justiziaren ideari erreparatuz, legitimoa izateko demokratikoa izan behar da. Hau da, herriaren borondatea, subiranotasun osoarekin, demokratikoki adierazten da. Hori edozein testu konstituziogilek apelatzen duen printzipio demokratikoa da: «Euskal herritarrek nola zuzenean, hala beren legezko ordezkarien bitartez, libre eta demokratikoki adierazitako borondatea izango da»⁴. Modu batean edo bestean, euskal herritarren borondatea demokratikoki adierazteak

1. Espainiako Konstituzioaren hitzaurrea, 11. or.

2. Espainiako Konstituzioaren atariko tituluaren lehenengo artikulua, 12. or.

3. Espainiako Konstituzioaren hitzaurrea, 11. or.

4. 2019. urtean EAEko Legebiltzarrak autogobernu-ponentzian adosturiko oinarrien hitzaurrean, Legezketasun Printzipioa, 17. or.

subiranotasunari erreferentzia egiten dio. Hain justu, estatutu berri batek bermatu nahiko lukeen komunitate politikoaren existentzia beharrezko duen adierazpen juridiko eta politikoari buruz ari gara.

Subiranotasunaren aferak euskaldunon arteko edota beste edozein pertsonaren arteko harreman politikoaren ereduari erreferentzia egiten dio, baina honako gaiak barnebiltzen ditu: gobernantza-eredua, kontsentsuaren beharra, herriaren eta jendetzaren arteko ezberdintasunak, subiranotasunaren legitimitatea, «komuna»ren sorrera, erabaki politikoak nola hartzen diren, etab.

Era horretara, Rousseuren obran aurki dezakegu honako ideia: «Subiranotasuna herriak mugatutako perimetroan egikaritzen den boterea da»; eta, Hardt eta Negriren pentsamenduan, postmodernitateari ateak irekitzen dizkion subiranotasunaren inguruko paradigma berri baten beharra azaleratzen duten ideiak kontrajarriko ditugu, hala nola «herriak marraztutako perimetroa gainditzen duten indar immanenteen agerpena». Beraz, lan honen helburua subiranotasunaren inguruan suertatutako eztabaidak gure aurrean argaineratu den mundu berrira egokitzea da.

Lehenengo begirada batean ikus dezakegunez, Rousseuren eta Hardt eta Negriren pentsamenduen arteko ezberdintasunak itzelak dira. Hala ere, haien pentsamendua ezagutaraztera ematen duten obren irakurketan murgildu bezain pronto, kontzeptuak ezaugarritzeko erabiltzen dituzten eskemetan antzekotasunak aurki ditzakegu. Hala, bada, bi autoreek erabiltzen duten argudio-lerro jarraikorra subiranotasuna bada, nahiz eta subjektu ezberdin bati buruz hitz egin, argudiotegiaren erdigunean aurkitzen da.

Rousseuren pentsamenduan subiranotasuna herri-demokrazia bihurtzen bada, Hardt eta Negri azalduko digute nola jendetza komunaren demokrazia sortzean subiranotasunarekin apurtzen den. Gure ustetan, teorikoki iragartzen duten subiranotasunik eza paradigma berri baten beharra azalarazten duen deiar bat da. Hau da, mundu globalizatu, interkonektatu, interdependente eta, azken finean, kapitalaren agindupeko mundu batean, bizitza politikoa gobernatzeko paradigma berri baten premia agerikoa egiten duen teoria.

Rousseuren pentsamendura hurbiltzean, pentsa genezake haren obra konpontzen ahalegintzen den arazoa legitimitatearena dela. Hain justu, borondate orokorraren eta guztien borondatearen arteko bereizketatik sortzen den arazoa. Hori horrela, subiranoa nola legitimatzen den aztertzer lagunduko duten galderak plazaratuko genituzke.

Haren pentsamenduaren irakurketa azkar batetik abiatuta, esan daiteke borondate orokorrak demokrazia sorrarazten duen heinean, horrek legitimoa izan behar duela; beraz, borondate orokorrak demokrazia legitimatzen du. Izan ere, demokrazia batean hartzen diren erabakiak herriaren borondate orokorrean oinarritzen dira.

Ikus dezakegunez, momentu jakin batean legitimitatearen arazoa demokraziaren arazo bihurtzen da. Hori, arazoa txarto identifikatu dugulako gertatzen da; izan ere, Rousseuren irakaspenak arretaz irakurtzen baditugu, konturatuko gara,

demokrazia, arazoa izan beharrean, konponbidea dela. Hain zuzen, jabetzaren arazoa konpontzen ahalegintzen den kontzeptua.

Beraz, Rousseauk aztertzen duen arazoa jabetzaren agerpena da. Hain zuzen, XVIII. mendean zehar antzemandako, eta bere obran irudikatutako, estatu forma berri baten boterea nola kudeatu behar litzatekeen teorizatu zuen. Hardt eta Negrik arazoa jabetzan identifikatzean Roussearekin bat egiten dute. Baina, Rousseauk ez bezala, arazoa konpontzeko bi autore horiek daukaten ideia *jendetza* da. Zentzu horretan, autore horien arteko ezberdintasun nagusiak subjektuaren inguruko eztabaidan azaleratzen dira. Hala ere, nahiz eta demokrazia-eredu ezberdinak plazaratu, beste behin, demokrazia arazoa gestionatzeko modu egokiena dela azalduko dute.

Jabetzaren arazoa subiranotasunaren bitartez ezaugarritzen den heinean, Rousseauk adierazten duen legez, esan genezake herriak sortutako subiranoa demokraziaren bitartez legitimatzen dela. Baina herriak marraztutako perimetroa zeharkatzen duten jendetza bezalako indar immanentek subiranotasuna eraberritzera behartzen dute. Hortaz, sortutako galderak honako hauek dira:

- 1) Gauza komunaz arduratzen den subjektu burujabeak nola ezaugarritzen du subiranotasuna?
- 2) Eta, horren beharrik ez duen jendetzak?

2. Subiranotasunaren funtzioak

Behin J. J. Rousseauk gorputz politikoa egituratzen duenean, horren boterea egikaritutako duen autoritatearen beharra dago. Zentzu horretan, egitura horrek errespetatutako duen printzipio garrantzitsuenetariko bat justiziarena da, eta, hori, legeen bitartez adieraziko da. Autoritate morala, herriaren deliberazioaren bitartez determinatutako arauak ezarriko dituen «ni komun» bat bezala eraikitzen da. Justua zer den adosteko herriak egiten duen eztabaida subiranotasun-ariketa bat da.

2.1. Ni komuna

Zentzu horretan, Rousseauk bere buruari galdetzen dio, ea nola autoritate bat legitimoki aintzakotzat har daitekeen (Moreau, 1977: 200). Galderari erantzuteko ahaleginetan kontratu sozialera jotzen du. Izan ere, botere publiko baten beharra sumatzen du, eta, kontratua sinatu duten pertsona guztien eskubideen alienazioa dela medio, botere publiko bat eraikitzen da. Era horretara, *Kontratu sozialak* burujabetza legitimoaren baldintzak definitzeko arazoari ekiten dio.

Rodolfo Mondolfok (1967: 86) azaltzen digun moduan, kontratuaren arrazoi nagusia askatasuna da. Izan ere, kontratu sozialaren bitartez, sinatzaile guztiak berdintasun zibil eta moral batez hornituta, ez dira beste inoren borondatearen menpe egongo. Hori horrela, pertsonak moral eta borondate propioa duen entitate kolektibo bat osatuko dute, baina hori osatzean norbanakoek euren askatasuna beste guztiekin alienatuko dute kontratuan. Joseph Moreauk (1977: 180) idazten

duen bezala, kontratua horrela ulertuta printzipio berdinzaleetan sostengatzen da, baina «askatasun eta eskubideak berdintasunarengatik alienatzea immorala da, gainera, zentzurik gabekoa da». Beraz, ezinbestekoa da hitzarmena bidezkoa izatea.

Justizia

Hain zuzen, kontratu sozialak justiziaren arazoari aurre egiten dio. Eta, Rousseauk honako galdera egiten du: nahiz eta autoritatea legitimoa izan, nola lortzen da ezarritako ordena zibila norbanakoek obeditzea? Zentzu horretan, ordena zibilak ezarritako arauak zuzenbide justu bat sortu behar dute. Hori horrela, kontratu sozialetik eratoritzen den autoritateak bidezkoak diren arauak ezartzeko botere legitimo bat egikaritu beharko du. Moureaux (*idem*: 184) azaltzen digun moduan, zuzenbidearen oinarriak ondo ulertu nahi badira, autoritatearen printzipioa ezinbestekoa da.

Ni komun subiranoa

Autoritatearen printzipioa kontratu sozialean aurkitzen da; «ni komun»ean. Izan ere, herri bat sortzeko sinatzaileak akordio komun batera iritsi dira. Eta, herria subiranoa den heinean, herritarrez⁵ osatuta, modu aktibo batean deliberazio publiko baten bitartez interes komuna adieraziko du. Modu horretara, herriak bere borondatea eta subiranotasuna ezarriko duen ni komun bat sorraraziko du. Prozesu honen bitartez subiranotasuna kontratuan immanente dagoen botere gorenaz⁶ jabetzen dela esan genezake.

Subiranoa entitate kolektibo bat bezala ulertzen dugun heinean, osotasuna eta parteak bereizi ahal ditugu. Rousseauentzat entitate kolektibo hau herria da; izan ere, kontratu sozialaren bitartez egituratutako unitatea osatzen duten parteek, beren borondate partikularra, borondate orokorraren menpe jartzen dute. Eta, osotasun horrek bizitza eta borondate propioa duen ni komun bat eratzen du (Rousseau, 2018: 32). Mondolfo (1967: 73) azaltzen digun moduan, Rousseauk borondate orokorra eta guztien borondatea bereiziz konpontzen du arazoa. Izan ere, borondate orokorraren bitartez herriak objektiboak diren lege zibilak ezar ditzake.

Beraz, esan genezake bidezko arauak ezartzeko botere legitimoa eta burujabea ni komun batetik datorrela. Eta, horrek, subiranoa den heinean, bere borondatea lege zibilen bidez ezar dezake, era horretara, beharrezkoa duen autoritatea «ni komuna» sortzea ahalbidetu duen gorputz sozialaren moraletik jasotzen du; hori, «borondate propioa eta sentsibiltate komuna duen *ni-a*» da (Rousseau, in Mondolfo, 1967: 78).

2.2. Borondate aktiboa arau bezala

Azaldu bezala, unitate kolektiboa herria da, eta, hori, ideal bat da. Izan ere, kontratu sozialaren sinatzaile guztiek hartutako konpromisoa elkarrizketa publiko baten

5. Lan honetan herritar hitza erabiltzean ez dugu kontzeptzio liberalaren eta errepublikanoaren arteko bereizketarik egingo.

6. Norberto Bobbio (1987: 80) idazten duen bezala, subirano hitzak «botere gorena» esanahi du, eta «botere subirano bat dagoen tokian estatu bat dago». Hori horrela, Jean Bodino-k azaltzen digun legez, estatuaren botere gorena ulertzeko subiranotasunaren kontzeptua klabea da (Gonzalez, 1980: 87).

bitartez gauzatzen da, eta deliberazio horrek parte-hartzaile guztiak berdintasunezko egoera batean kokatzen ditu. Horregatik, «sinatzaileek, gorputz politiko bezala, ezin dute euren interes legitimoen kontrakoa den ezer erabaki» (Moreau, 1977: 202). Zentzu horretan, subiranoak soilik interes komunari arreta eskaintzen dio. Peter Hallwardek azaltzen duen legez, bakarrik aktiboa den borondate batek adieraz dezake interes komuna. Eta hori herriaren mobilizazio batengatik ezagutu daiteke.

Zentzu horretan, Rousseauk kontratu sozialean deskribatzen duen gizakiak, *amour propre*-tik eratortzen diren izaera gatazkatsuak alde batera utzita, bere izatea besteekin batera aurkitzen du; hau da, gizaki solidario bat da (Peña, 1995: 130-132). Interpretazio hori egoera naturalean existitzen zen gizakian oinarritzen da, baina, egoera naturalean ez bezala, kontratu sozialean gizakiak ez ditu arauak aurkitzen, eta horiek adostea sinatzaileei dagokie. Platonen errepublikarekin ados eta Aristotelesek deskribatzen digun politikaren arteari apelatuz, politikak adosteko, komunztatzeko, biltzeko edota aholkatzeko balio izan behar du, era horretara errealitate kolektibo berri bat sortuz.

Beraz, Rousseauen irakaspenei jarraituz gero, arauak aipatutako elkarrizketa publiko baten ondorio izango dira; arauak errespetatzeko premia jabetu zen. «Habermasen arabera, Rousseauk zilegitasun naturala prozedurazko legitimitatearekin ordezkatzeko du» (*idem*: 133). Hori lortzeko justiziaren ideian erreparatzen du; izan ere, bizitza sozialean errespetatu beharreko arauak justiziaren bitartez sinatzaile guztiek errespetatuko dituzte, printzipio horrek elkarrekikotasuna bilatzen baitu (Moreau, 1977: 205).

Rousseauk proposatzen duen kontratuan gizartea eta egoera naturalean gizakiek zeukaten askatasuna batzen ditu (Peña, 1995: 133). Hori, pertsonen eta haien eskubideen alienazioaren bitartez egiten da, baina, Rousseauk azaltzen digun legez, alienazioa deliberazio-prozesu baten bitartez lortzen da. Elkarrizketa herriak daukan interes komunaren inguruan egiten da, bertan, borondate orokorraren eraketan jardungo du, eta, hain justu deliberazioaren ondorioz borondatea adieraziko da.

Esan bezala, «gorputz politikoaren arauak deliberazio publiko batetik etortzen dira: bertan aurkitzen da subiranotasunaren jatorria» (Moreau, 1977: 207). Cecilia Mc Donellek azaltzen duen legez, Rousseauk (2018, 40) borondate orokorraren ekintza bezala ulertzen du subiranotasuna. Eta, ekintza hori soilik subiranoak egikaritu dezake; izan ere, herriak interes komun bat duen heinean borondate orokorraren eraketan parte hartzen du. Hallwardek azaltzen duenez, boluntarioa eta autonomia izan behar du; izan ere, subiranotasuna askatasun-praktika bat da.

2.3. Subiranoaren botere legitimoa

Herriaren askatasuna ezin da beste inoren esku egon, subiranotasunaren jardutea ezin da besterendu, soilik herriak ordezkari dezake bere burua. Halaber, herri subiranoak baino ezin dezake praktikatu subiranotasuna; izan ere, borondatea ezin da transmititu (Rousseau, 2018: 40). Hallwardek seinatzen duen bezala, subiranotasuna borondate orokorra praktikara eramatea bada, subiranoak borondatearen aitzinean boterea dauka. Hori horrela, borondatearen, subiranoa izaten jarraitzeko, objektuak beti orokorra izan behar du.

Honela idazten du Rousseauk (2018: 41): «Borondatea orokorra da edo ez da, herriaren osotasunari dagokio edo bakarrik parte bati. Lehenengo kasuan, adierazten den borondatea subiranotasun-ekintza bat da eta horrek legea sortzen du». Beraz, ekintza subiranoak soilik herriaren osotasunetik etorri ahal dira. Era horretara, Rousseauk herri burujabearen bitartez borondate orokorra ezartzeko beharrezkoa den boterea legitimatzen du. Izan ere, pertsona guztiak eta boterea entregatu zaion komunitatea, parte guztiak behartzen ditu, obeditzerakoan, norbanako bakoitzak bere borondatea obeditzen duelako (Gonzalez, 1980: 143).

2.4. Autoritatea

Legeak daukan boterea ekintza subiranoaren autoritate moraletik dator; izan ere, ni komunak norbanako guztiak aske izatera behartzen ditu. Hori horrela, kontratua sinatzean alienatutako askatasun naturala, askatasun zibilaren bitartez bueltan jasotzen du. Zentzu horretan, subiranotasuna borondate orokorrak esaten dituen moduko legeak egitean datza.

Beraz, Rousseauk (2018: 41) azaltzen duen moduan, ekintza subiranoa lege bezala ulertzen badugu, haren autoritatea borondate orokorretik dator. Legeek komunitatearen barneko arauak zehazten dituzten heinean, horiek, ni komunaren bitartez, ezartzeko beharrezkoa den boterea legitimatzen dute; hain zuzen, estatua.

2.5. Nola legitimatzen dira legeak?

Ni komuna sorraraztea ahalbidetzen duen ekintza kontratua bera da. Eta, orain arazoa legegilearen autoritatean aurkitzen da (Mondolfo, 1967: 81). Mondolfok (*idem*: 82) azaltzen digun moduan, «herria estatuarengan delegatzen du boterea, baina ezin du bere osotasunean entregatu; izan ere, kontratuak sortutako subjektu burujabeak justizia eta berdintasuna beti aldarrikatu ahalko ditu».

2.6. Boterearen antolaketa

Aipatutako obediencia funtzio legegile eta exekutiboaren bitartez gauzatzen da. Izan ere, objektuaren zatiketa bat gertatzen da: alde batetik, borondatea exekutatzeko indarra, eta, bestetik, borondateak nolakoa izan beharko lukeen determinatuko duen botere legegilea. Baina, ezin dugu ahaztu subiranotasuna beti herriarena dela. Eta, hori unitate bezala ezin da inoiz zatikatuta egon, ordea, boterea delega daiteke. Beraz, legegilea beti herriaren esku egongo da eta exekutiboa gobernuan delegatuta ikus dezakegu.

Hori horrela, Mc Donell irakasleak proposatzen digu Rousseauaren sistema politikoa ikuspuntu schmittiar batetik estatu legegile bat bezala ulertzea. Izan ere, borondate orokorra ezarri ahal izateko ekintza subiranoak legeetan gauzatu behar dira. Modu horretara, komunitate politikoaren parte guztiak norabide berean mugitzea posible egiten duen boterea legitimatzen da. Baina, azaldu bezala, kontuan izan behar dugu estatuaren legeak deliberazio publiko batetik jaiotzen direla, eta, horiek ez dira bidezkoak izango eztabaida publikoa interes komunaren inguruan oinarritzen

ez bada (Moreau, 1977: 207). Hortaz, herri-subiranotasunean oinarrituz, legeak ezar dezakeen botere legitimo baten konstituzioaz ari gara.

2.7. Subiranoa eta estatua

Pertsona publiko gisa finka daitekeen subjektu subiranoa estatua da; baina, argi izan behar dugu estatuaren eraketa herri-subiranotasunaren bitartez legitimatzen dela. Augusto Bolívar eta Oscar Cuéllarrek gogorarazten digutenez, Roussearentzat (2018: 32) «besteen batasunaren bitartez osatutako pertsona publikoa... kideek pasiboa denean estatua bezala identifikatzen dute eta aktiboa denean subiranoa». Izan ere, herriak legegintzari ekitean modu aktibo batean bere borondate orokorra adierazten du (Mc Donnel, 2013). Zentzu horretan, herria osatzen duten partikularitateak aktiboak direnean herritar bezala identifikatzen dira eta pasiboak direnean agindupekoak. Beraz, subiranoa norbanakoen gainetik kokatzen den entitate kolektiboa da (García, 2012: 122), eta, haren funtzioa justiziaren idealarekin bat egiten duten arau sozialak sortzea da.

Aipatutako bereizketa herriaren eta estatuaren objektua definitzeko lagungarria da. Subiranoa bakarra da, baina, era berean, subiranoa herria eta estatua izan daitezke. Bereizketa hori objektuaren arabera gertatzen da; izan ere, objektua kanpokotasun batean kokatzen bada, subiranoa estatua da, eta, objektua barnekotasun batean aurkitzen bada, subiranoa herria da. Herriaren barnekotasuna herritarra da, eta, Rousseauk, herritar hori legegintzan irudikatzen du; hau da, deliberazio publikoan parte hartzen duen norbanakoa. Baina, prozesu horretan parte hartzen ez duen pertsona kanpoan geratzen da, estatuarentzat agindupekoa da; izan ere, bere borondate partikularra pasiboa denez, estatuak borondate orokorrarekin bat egitera behartuko duen legearen menpekoa da; hau da, tradizio liberalak gorai patzen duen herritar eskubideduna.

Hori horrela, Rousseauk aske izateko era borondate orokorrean aurkitzen du, eta, unibertsala den heinean, interes orokorraren arabera ongi komuna lortzera bideratuko ditu bere ahaleginak. Baina, nola ezagutu daiteke ongi komuna eta legea sor dezakeen borondate orokorra? (Gonzalez, 1980: 143).

Esan genezake subiranotasuna momentu berean bi leku ezberdinetan aurkitzen den fenomeno dela. Zentzu horretan, borondate orokorraren eta guztien borondatearen arteko bereizketa aurkitzen da. Guztien borondateak norbanakoen borondate partikularra aintzat hartzen du, eta borondate partikularra menpekoak diren pertsonengan aurkitzen da. Norbanakoaren borondatea borondate orokorrarekin kontraesanean sartzen bada, komunitatea izan behar denarekin tentsioa sortuko du; izan ere, norbanakoaren borondate partikularra izaten dena izan behar denarekin gatazkan egongo da. Baina, borondate orokorra unibertsaltasun bezala ulertuta, herria osatzen duten herritar aktiboetan dago; hain zuzen, ni komun subiranoa egikaritzen dutelako, eta bertan egiten den deliberazioan soilik aurkitzen da ordena zibila ezartzeko beharrezkoak diren legeen legitimitatea.

Hori horrela, estatuaren gobernuak legeak exekutatzeko dituen, herritarrak, askotan, agindupekoak bezala ikusiko ditu. Baina, «subiranoak ezingo du inor

legeak errespetatzera behartu; izan ere, haren funtzioa soilik legegilea da» (Moreau, 1977: 221). Horrela argudiatzen du Rousseauk (2018: 115), botere exekutiboa subiranoak izango balu, zuzenbidea eta egintza hain berdinak izango lirateke, ezen ezingo genukeen legea eta legea ez dena ezberdindu. Botere exekutiboak ekintza partikularretan dauka eragina, beraz, ezin da orokortasun baten menpe egon. Eta ekintza partikularretan eragiten duenez, herritarrak agindupeko bezala ulertzen ditu; hain zuzen, haien borondate partikularretan eragin behar duelako. Rousseauk erdibideko agente baten beharra ikusten du.

2.8. Gobernu demokratikoa

Rousseuren ideala guztien arteko adostasuna da, haren ustetan borondate orokorraren eta partikularren arteko tentsioa komunitate demokratiko batean ematen den deliberazioaren bitartez sosegatzen da. Beraz, demokrazian eztabaidatzen duen herri subiranoak legea egiten du, baina legeen exekuzioa gobernuaren esku dago. Izan ere, orokortasunetik kanpo gelditzen denaren gainean boterea erabiltzeko gobernuaren beharra dago. Beraz, herriak boterea gobernuan delegatzen du, baina, esan dugun bezala, subiranotasuna beti herrian egongo da eta hori ezin da banatu, bai, ordea, boterea. Mondolfok (1967: 82) azaltzen duen moduan, boterearen delegazio horretan bigarren kontratu bat bereizten du, hain zuzen, *pactum subiectionis* deitutakoan herria agindupeko bilakatzen da; gogoratu delegazioa ez dela bere osotasunean ematen. Gobernuak herri subirano baten boterea ordezkatu du, hau da, estatu baten gobernu izango da. Zentzu horretan, estatuak, boterearen administratzaile bezala, botere legegilea eta exekutiboa bereiziko ditu.

Herri subiranoak determinatutako araua botereak jarraitu beharko duen prozedurako lerro nagusia da. Eguneroko bizitzak ordena zibila aldatzera behartuko duen heinean, gobernuak modalitate ezberdinak garatu beharko ditu lerro nagusia adar ezberdinetan banatuz. Botere legegilea herriaren esku dagoela azaldu badugu, orain, Rousseauk proposatzen duen gobernuaren exekutiboa demokratikoa izateko, boterea biltzarren bitartez egikaritu beharko da (Moreau, 1977: 223). Izan ere, modalitate horiek guztiek eguneroko bizitzak eskatzen duen malgutasunaren menpe egon beharko dute. Hortaz, Rousseauk proposatzen duen estatu legegilea etengabeko deliberazio baterako prest dago.

3. Subiranotasun postmodernoaren funtzioak

Michael Hard eta Antonio Negri (2018: 13) aipatzen duten bezala, «estatu-nazioen subiranotasuna progresiboki makaltzen joan da». Izan ere, botere egituratzailearen ahalmen eraldatzailea kontrolatu nahi izateak politikaren dimentsio gatazkatsua dakar, eta, horren ondorioz, arau formalekin bete beharreko hutsune bat zabaltzen da estatu-nazioaren mugak gainbeheratu ez daitezten. Mugen ahultzea antzeman dezakegu «produkzioarako eta trukerako erabiltzen diren dirua, teknologia, pertsonak eta ondasunak bezalako lehen mailako faktoreek gero eta errazago muga nazionalak nola zeharkatzen» dituzten ikustean. Fenomeno horrek estatu-nazioaren subiranotasunaren galera eragiten du, eta, hain zuzen,

kanpokotasuna barneratzerakoan hori gertatzen da. Hau da, mugek marrazten duten lerroaren beste aldean geratu den hori barneko bizitza politikoa ordenatu ahal izateko salbuespenerako erabili dute, ordenamendu juridikoaren eremu formalean zirrikituak aurkituko litzuzkeen politika den guztia hankaz gora jarritz.

Hard eta Negrik deskribatzen duten fenomenoaren zergatia prozesu kapitalistari egiten dioten kritikan aurkitzen da. Izan ere, *Imperioko* hitzaurrean idatzi bezala, «askoren ustetan globalizazioak eragindako produkzio-eredu berriek eraldatutako truke kapitalistaren ondorioz, harreman ekonomikoak kontrol politikoekiko autonomoagoak bilakatu dira; eta, horrenbestez, subiranotasun politikoa endekapenean dago» (*idem*).

Halatan, bi pentsalari horiek bestelako subiranotasun batean pentsatzera behartuta ikusten dute euren burua. Beraz, subiranotasuna postmodernitatean pentsarazteak, nahitaez, subjektuaren deseraikuntza batetik igaro behar du; hau da, modernitatean existitutako subjektuek identitatea galtzearen ondorioz, postmodernitatearen barrenean disolbatuko dira. Aurrera dezakegu, eta betiere nire uste apalean, Hardt eta Negrik herria edota bestelako subjektu homogeneoak deseraikitzen dituzten bitartean, aberastasunaren produkzioan parte hartzen duten langileen zentzu estetikoan arakaturaz, subjektu berri bat irudikatzen joango direla. Zentzu horretan, barne har ezin daitekeena edukitzeko ahalmena duen forma menderatzaile batean pentsatzen dute. Forma menderatzaile berri hori ez da muga edota hesietan oinarrituko, «lurgune globalaren osotasuna etengabeko hedapenean dauden muga barnean progresiboki barneratzen duen, zentratuta ez dagoen eta lekurik ez duen aparatu menderatzailea da» (Hardt & Negri, *idem*: 14).

Nestor Kohanek (2003) azaltzen digun bezala, Hardt eta Negrik pentsatzen duten subiranotasun forma berri hau modernitatetik postmodernitateera doan mugimenduan aurkitzen da; trantsitu hori merkatu kapitalistaren garapenarekin nahasten da. Bide horretan garatzen den logika berriari jaiotzen da Hardt eta Negrik deskribatzen duten subiranotasunaren forma berria. Zentzu horretan, autore horiek modernitatean gailendu zen dialektikak denbora desizozten ez duenez, baztertzen dute (Hardt & Negri, 2002, in KOHAN, 2003), eta Alan Rushek (2003) gogorarazten digunez, logika berri honek eklektizismoa ospatzen du; hau da, subiranotasun forma berria azaldu ahal izateko paradigmatetik ihes egiten duten ikuspuntu ezberdinak baliatzen dituzte. Eduardo Molinak (2017: 516) azaltzen duen legez, globalizazio kapitalistak eraikitzen duen gainegitura logika pragmatiko eta hibridoetan oinarritzen den inperio bat da, eta hori «informatizatutako eta hegemonikoki immateriala den produkzio-eredu batean oinarritzen da».

Lehenago estalgabetu dugun bezala, Hardt eta Negrik estatu nazionalen subiranotasuna gainbeheratzea defendatzen dute. Hori horrela, urgaineratzen doan subiranotasun berriak bere funtzioak espazio ez lokalizatu batean garatzen ditu; hortaz, bere aurrekoak ez bezala botereak ez dauka mugek zehaztutako leku zehatz bat, subiranotasun berri honen botereak dena besarkatu nahi du. Inperioak helburu hori izanda, baliagarri zaion edozein kontrol eta ordezkartzak erakundeetan bere boterea hedatuko du; hori horrela, botere inperiala funtzio eta edukien arabera banatutako gorputz ezberdin askotan kokatuta egongo da (Hardt & Negri, 2018: 332).

3.1. Subiranotasun inperiala

Hardt eta Negri (2018: 16), inperioa, kontzeptu gisa definitzen dutenean, mugarik gabeko menderatze bezala egiten dute. Molinak (2017: 516-517) adieraziko du inperioa globalizazioaren ondorioz sorrarazitako mundu-mailako egituraketa soziala dela Negrirentzat. Botere inperiala nahastutako erakunde ezberdinetan antolatuta egonda, hura erabiltzeko aginte-zentrorik ez dago; beraz, subiranotasun forma berri hau deszentralizatuta eta des-lurraldetuta dago (Hardt & Negri, 2018: 14). Hori horrela, «subiranotasun inperiala ezaugarritzen duen oinarritzko elementua espazioa beti irekita izatearena da» (*idem*: 187).

Dialektikaren amaiera

Postmodernitatearen garaian kanpokotasuna barneratzen bada eta berarekin batera dialektika ere, Hardt eta Negri ez dute metodo dialektikoa guztiz baztertuko; izan ere, lehen kanpoan zegoen hori orain barruan egonda ere, agerikoa egiten da⁷. Ideia hori ulertaraztera eman zuten «ezberdina den garapen konbinatua» kontzeptuan (Rush, 2003: 289). Zentzu horretan, Althusserren pentsamendua Hardt eta Negriren ideietan azaleratzen da. Negri postmodernitatearen garaian ez du «osotasuna»ren kategoria aintzat hartuko; «horrela idatzi zion Félix Guattariri: osotasuna beti etsaiarena da» (Kohan, *idem*: 333).

Hardt eta Negri, Althusserren pentsamenduaren eragina dela eta, Hegelen dialektikak postulatuak diren subjektuarekiko independentea den ekintzan oinarritzen den transzentalitate ere urrundu egiten dira. «Hegelek uste zuen errealitate orok bere zentzua eta egia bere izateak haratago aurkitzen zuela, hau da, prozesu bat ibili ondoren aurkitzen den xedean; baina, hori hasieratik aurrez iragarrita egongo litzateke. Hori horrela, Althusserrek ez du onartuko komunismoa gizakiaren amaiera zoriontsua denik» (Kohan, 2003: 336). Hala ere, Hardt eta Negri kapitalaren immanentzia sinesten dute; hau da, materialismo historikoaren⁸ arabera kapitalak fenomeno sozial asko sorrarazten dituen heinean, aurrez existitzen diren legeak ezagutzen gero, historiaren prozesua determinatu daitekeela uste dute.

Hori esanda, gure ustetan, Hardt eta Negri bi uren artean mugitzen den subjektibitate batean pentsatzen dute; hain zuzen, Israel Arcosek azaltzen digun «bilakatzen doan subjektuan». Pentsamendu horrek, Hardt eta Negri propio dutenak, Baruch Spinozarengandik ere edaten du; izan ere, modernitatearen filosofo horrentzat errealitatea ez da substantzia bat, baizik eta kontraesanek zeharkatutako prozesu bat. Alabaina, prozesuaren baitan substantzien edota materiaren arteko transferentziak gertatzen dira. Substantziak eduki ezberdinez bete ahal diren heinean, eraldaketak jasan ditzakete euren artean nahasiz edota barreiatuz; eta prozesuak aldaketa horiekin guztiekin ere aurrera jarraitzen du. Pentsa genezake Hardt eta Negriren subjektua prozesu horren baitan aurkitzea. «Gilles Deleuzek deskribatzen digun subjektuak, plano immanente batean ugaritasun erreal batek produktutakoak, subjektu konstruktua eta subjektu subiranoa zalantzan jartzen ditu» (Arcos, 2017:

7. Autoreek azaltzen duten moduan, garai berri honetan, lehen munduaren barruan hirugarren mundua aurki dezakegu, esate baterako, aberatsak diren hirietan existitzen diren faboletan.

8. *Materialismo historiko*ak Marxek *Kapitala* obran garatutako ideia zientifiko ekonomikoetarako erreferentzia egiten die.

47). Hard eta Negrik partikularitate ezberdin askoren artean aurkitzen den aniztasun hori baliatuko dute euren pentsamendua garatzeko. Era horretara, momentu jakin batean galdutzat eman den bizitza politikoa eremu publikora eramatea lortzen dute.

Pribatuaren eta publikoaren artean

Kohaneke Hardt eta Negri zuzentzen dizkien kritikak marxismo heterodoxotik postestruturalismora egin ahal zaizkienak dira. Hau da, autore hauek identifikatzen dituzten:

Gatazkak eta dominazio puntualak ez diete uzten subordinazioa ahalbidetzen duen lotura globala ikuskatzen, hori horrela, zapalkuntza espezifikoa produkzio kapitalistaren baitan barneratzen eta erreproduzitzen ditu. Gatazka horiek generokoak, etnikoak, kulturalak, belaunaldien artekoak, nazionalak, ekologikoak, gutxiengo sexualenak, eta abarrekoak dira (Kohan, 2003: 332).

Althusserren (1967: 5) irakaspenei jarraituta, gomendagarria da egitura horiek historiaren teoriaren bitartez ulertzea; hau da, produkzio modu ezberdinen teoriari arabera. Zentzu horretan, produkzio-eredu jakin bakoitzak talde sozial ezberdinak eraikitzen ditu, eta egitura deitzen diegu. Hemen aurki dezakegu Althusserrek Spinozarengan jasotzen duen influentzia; izan ere, azken hori «historiaren teoria eta berehalako opakotasunaren filosofia batera proposatu zituen lehenengoa izan zen» (Althusser, 1988: 21, in Kohan, 2003: 336). Hori horrela, Althusserrek teoria marxistan aipatutako bi diziplina bereizten ditu. Horrela azaltzen du historiaren teoria «osotasun organikoa»ren edo egituraren natura espezifikoa teoria dela (Althusser, 1967: 5); beraz, bere «mailen» bildumen eta horien arteko artikulazioaren arabera bata eta bestearen arteko binkulazioa determinatuko da; era berean, maila ekonomikoarekin daukaten harremanak honekiko daukaten dependentzia edota autonomia zehaztuko du. Aipatutako mailetariko batek «autonomia erlatiboa» izango du, hori horrela, «osotasun partzial» bat bezala kontsideratu ahal da. Marxek *Kapitalean* zientifikoki garatzen duen «autonomia erlatiboa»ren ideien inguruan ari gara, eta horren jatorria Grundrissetan azaltzen den «osotasun zehatz»ean aurkitzen da. Pentsa genezake Negrik, osotasunaren kontrakoa izanik, pluralismoaren ideia hortik erreskatatzea.

3.2. Botere inperiala

«Merkatu globalarekin eta produkzioaren zirkuituekin batera ordena global berri bat sortu zen, menerapen-egitura eta -logika berriekin: subiranotasun forma berri bat», hau da, Inperioa, «mundua gobernatzen duen botere subiranoa» (Hardt & Negri, 2018: 13). Orrialde batzuk aurrerago, Hardt eta Negrik (*idem*: 187) modu honetara definituko dute botere inperiala: «Kontzeptualizazio inperialean boterearen logika espantsiboaren ordena beti berrituta eta birsortuta aurkitzen duen» boterea da. Beraz, logika honetara moldatzen den, Inperioa deitutako, subiranotasun-egitura berria mundu-mailako botere-eskema bat da⁹. Argi izan behar dugu Hardt eta Negrik

9. Hard eta Negrik (*idem*: 332-334) botere inperial bezala deskribatutakoa hiru adar nagusitan antolatuta egongo litzateke: lehenik, AEB eta superpotentziak edota potentziak diren gainerako estatu-nazioak, bigarrenik enpresa transnazionalak, eta, azkenik, mundu-mailan erakundetutako ordezkartza-organoak eta gainerako estatu-nazio guztiak. Eskema honen egituraketa globalizazioarekin batera

deskribatzen duten botere inperiala globalizazio kapitalistarekin batera eratzten den inperioarekin sortzen dela.

Zentzu horretan, Hardt eta Negri *Imperio*ren XIV. kapituluaz azaltzen diguten moduan, inperioaren ordena juridiko eta politikoa erakunde eta gailu supranazionalak garatu da; «marko konstituzional berri hau neurrigabeko eta kaotikoa den kontrol eta erakunde ordezkatzailerik bezala aurkezten da... estatuaren aparatu eta erakunde konstituzionalak beste maila batzuetara mugitu» (Hardt & Negri, 2018: 330) baitira, hala ere, estatu-nazioek ez dituzte subiranotasunaren eskumen guztiak galduko. Estatu modernoaren boterea maneiatzen zuten eliteak orain ez daude zatikatuta; izan ere, botere inperialak muga nazionalak ezabatu ditu. Orain, eliteak konbinatuta daude.

3.3. Dena nahi duen botere bat

Foucaulten obraren inguruan Deleuzek egiten duen interpretazioan oinarrituta, Hard eta Negrirentzat botere inperiala botere «biopolitiko» bat da; hots, bizitza eta subjektibitatearen gainean agintzen duen boterea. Zentzu horretan, subiranotasun modernotik «subiranotasun inperialera» gertatzen den paradigma-aldaketak «diziplinaren paradigmatik kontrolaren paradigmara suertatzen den aldaketarekin» (Hard eta Negri, 2018: 342) kointziditzen du. Izan ere, Foucaulten idazlanak menerapen inperialaren azterketa egin ahal izateko zorua landu zuen (*idem*: 43). Hard eta Negri gogorarazten diguten bezala, Foucaultek idatzitako *Sexualitatearen historia* liburuan botere inperialaren izaera *biopolitiko*a ezagutu dezakegu (*idem*: 44). Izan ere, aipatutako lan horretan Foucaultek ondorioztatutako du: boterea izatezko gailu juridiko bezala ezegokia dela; izan ere, legea bazterketa, errefusa, hesia edota ukapena barnebiltzen dituen ideia bezala ulertu behar dugu. Aldagai horietan pentsatuz gero, taktikan eta estrategian oinarritutako boterearen logika batean pentsatu beharko genuke; *Behatu eta zigortu* liburuan azaltzen duen logika da. Foucaultek horrela azaltzen du 1975. urtean *Quel corps*¹⁰ aldizkarian gorputzaren eta boterearen inguruan egindako elkarrizketan. Haren ustetan, gorputzen artean gertatzen den dominazioa existituko ez balitz, estatuaren botereak ez luke funtzionatuko; botere-harremanak gorputza bera zeharkatzen dute. Elkarrizketan azaltzen duen moduan, estatuaren boterea botereen bitartez eraikitzen da, ez, ordea, norbanakoen borondateen bitartez lortutako akordio edota kontsentsuei esker. Argudio-lerro horri jarraituta, boterearen iturria estatua dela sostengatzen duen ideia agortuta dagoela diosku Foucaultek.

Zentzu horretan, Hardt eta Negrirentzat (2018: 44) «“bioboterea” bizitza soziala barrenetik arautzen duen botere forma bat da». Ideia horrek Foucaulten paradigma-aldaketan dauka bere jatorria; izan ere, *Behatu eta zigortu* liburuan erregearen figurak sistema politikoan jokatzeko duen papera aztertzen duela, adieraziko du XIX. mendeko gizarteak erregea ordezkatzeko duela. Baina hemendik aurrera borondate individualen bitartez egituratutako gorputz sozial bezala, gizartearen boterearen gorputza

eta «lan immateriala»rekin gertatzen den produkzio kapitalistaren ereduaren eraldaketarekin batera gertatzen da (Viguera, 2002: 222).

10. Aldizkari honen helburua gorputzak politikarekin zeukan harremana pentsatzea zen, eta 1977. urtean argitaratzeari utzi zion.

lez ikusiko da. Aipatu dugun moduan, Foucaultek argudiatuko du premisa horren jatorria botereak gorputzengan sorrarazten duen materialitatean aurkitzen dela. Gauzak horrela, estatu modernoak gizarteak dauzkan behar higieniko, sexual, osasun-behar, elikadura-behar eta abarren kudeaketaz arduratuko da. Beraz, «bioboterea», bizitza soziala kontrolatu eta arautu egiten duen, eta gizartearen barnean aurkitzen den, autoritate subiranoa da. Paradigma-aldaketa hau Negrik gizartearen gertatzen den moldaera-prozesu produktibo bezala aztertzen du (Nascimento, 2012); hain zuzen, Althusserrek bereizten duen materialismo historikoaren bitartez. Beraz, esan genezake merkatu kapitalista mundu globalean existitzen diren ezaugarri indibidualak prozesu produktiboaren bitartez uniformizatzen ahalegintzen dela. Gorputzak kontrolatu ahal izateko, botere biopolitikoak erabiltzen du horiek kapitalaren logikaren arabera funtziona dezaten; funtzionamendu horretan, alorrean jokatzeko moduari erreferentzia egiten dion horretan aurkitzen da uniformizazioa.

Hardt eta Negrik (2018: 205) dualismoetan oinarritutako paradigma modernoak eraginkorrak ez direla adierazten dute. Hala, bada, modernitatean zehar kanpokotasunak barneratzen zituen estatu subiranoak baliatzen zuen metodo dialektikoa agortutzat ematen dute. Behintzat maila makropolitiko batean; izan ere, Foucaulten «Mikrofisikaren teoriak» agintzen duen legez, subjektibitate artifizialek ere kontraboterearen bitartez erresistentziarako joera erakusten dute. Ikusiko dugunez, mundu inperialak, nahiz eta mundua uniformizatzen saiatu, ez du bere helburua lortzen.

Gizarte inperiala eta politikotasunaren defizita

Gizarte inperial berri honetan, modernitatearen garaian «Rousseauk eta Hobbesek ulertutako kanpokotasunaren antagonikoa den eta berarekin limitatzen zuen gizarte zibilak» zedarrizten dituen espazio limitatuak zentzua galtzen dute; «ordena naturalaren eta ordena zibilaren arteko subiranotasunaren dialektika, mundu inperialean, bere bukaerara iristen da» (Hardt & Negri, 2018: 209). Globalizazio-prozesuarekin batera, XX. mendean existitutako proletalgoaren izaera homogenea disolbatzen den bitartean, langile post-fordista agertzen doa. Langile hori desterritorializatutako mundu bateko, unitate globalean, langile guztiekin bateratzen da. Izan ere, subiranotasun modernoak eraikitako subjektu nazional homogenea definitzen zuten mugak erortzean, horiek babesten zuten unitate uniforme nazionala mundu globalean existitzen diren bestelako unitate nazionalekin amalgama heterogeneo bat sorrarazten dute.

Unitate global heterogeneo hori kontrolatzeko lehian, Hardt eta Negrik *Imperion*, subjektu askeak esklabo bihurtzen dituen mundu-mailako konstituzio misto bat deskribatzen dute. Subjektibitateak menperatuz eta horien arabera eraikitzen doazen erakundeak kontrolatzeko beste interesik ez duen agintaritzak botere inperiala erabiltzen du. Foucaultek dioen moduan, boterea soilik subjektu libreengan erabil daiteke. Hubert Dreyfus eta Paul Rabinowek (1983: 241-261) azaltzen diguten bezala, agintaritzak erabiltzen duen boterea subjektibitateen askatasuna murrizten saiatuko da. Foucaultek «botere pastoralak» azaltzen duenean, boterearen logika harreman asimetrico batean oinarritzen dela diosku. Izan ere, botere horrek ez du modu zuzen batean besteengan eragiten, ekintza potentzialak baldintzatzen

dituen egitura oso bat da eta haren helburua portaera gidatzea eta zuzentzea da. Bi autoreok azaldu bezala, Foucaultek botere-harreman hori joko bat bezala ulertzea bideratzen gaitu. Non eta erabiltzen den boterea Pierre Bourdieuk azaltzen duen *habitus*-ean¹¹ antzeman dezakegun.

Botere inperialak, nire uste apalean, joko-eremuetara erantsitako *habitus*-en bitartez unitate global askotarikoa neurtu ahal dituen segmentuen arabera kontrolatzen du; subjektuengan aurkitzen den bertutea baratuz. Bide horretan, unitatea zatikatzean inperioak errazagoa izango du hura gobernatzea. Hardt eta Negri (2018: 361) honakoa idazten dute: subiranotasuna gubernamentalitate bihurtuta ezberdintasunak berdindu behar ditu, horretarako administrazio inperialak sozialki banandutako eta segmentatutako indarrak baretu eta integratuko ditu. Baina kapitalak eta inperioak ulertzen ez dutena zera da, unitate globalean aurkitzen den aniztasuna edozein «neurritatik baino haratago dagoela» (Hardt & Negri, *idem*: 379); autoreek esamolde horretan aurkitzen dute bertutea. Izan ere, joko-eremu bakoitzean ezohikoa den zerbait agertzen denean, joko-zelaia hankaz gora jartzen da, eta *habitus*-a hori barneratzen edota baztertzen ahalegintzen da.

Beraz, *Imperio* liburuan deskribatzen duten botere inperiala horren erabilera eta agintaritza erabiltzen duen inperioa gizarte globalean existitzen den dibertsitatea uniformizatzen ahalegintzen da, eta gizartean existitzen diren mikrogatazkak kontrolatu eta diziplinatzen ditu. Aipatutako adibidera bueltatuz gero, dibertsitatean aurkitzen den arazoa politikaren *politikotasuna* ukatuz edota ezkutatuz gatazka ekiditen du. Ahalegin horretan, inperioak, politikaren dimentsio gatazkatsua desagerraraziz, plaza politikoak hustuz, *politikotasunaren* defizit bat eragiten du. Honela idazten dute Hardt eta Negri (*idem*: 223): subiranotasun inperiala «mikrogatazken sare malgu baten bitartez» antolatzen da. «Gizarte inperialaren kontraesanak ihesbidegarriak, ugalkorrek eta aurkiezinak dira: leku guztietan dauden kontraesanak dira». Zentzu horretan, «subiranotasun inperiala hobeto definitzen duen kontzeptua omnikrisia da». Hain justu, botere inperiala joko-eremu zehatzik ez duten mikrogatazkak mugarrizten ahalegintzen denean, hau da, *politikotasuna* otzantzean suertatzen den krisia.

Hardt eta Negri (*idem*, 353) idazten duten bezala, identitate zehaztugabea eta hibridoa den subjektibitateaz osatutako gizarte diziplinario batekin aurkitzen gara. Izan ere, diziplinaren gizartean existitzen ziren mugarritutako espazioak lausotu eta euren definizioa galtzearen ondorioz, erakundeetatik kanpo izaera horiek guztiak aldi berean izan daitezke; norbanakoak izaera horiek guztiak kontrolatzen ikasi behar du logika diziplinarioa oraindik eta hertsiago bilakatuz. Gauzak horrela, menderapen inperialak logika barneratzaile eta bereizgarri baten arabera funtzionatzen duen administrazio bat diseinatzen du. Hau da, ezberdintasun kulturalen aurrean alde ez-gatazkatsu bat ezartzen du; izan ere, bereizgarritasunak barneratzerakoan

11. «Habitus-a jolasaren zentzu gisa gizarte-joko txertatua da, natura bihurtua. Ezer ez da askeagoa edo mugatuagoa jokalaririk onaren nozioa baino. Habitus delakoak, gorputzean, gizabanako biologikoan inskribaturiko sozial gisa, jokoan inskribaturik dauden joko-ekintza asko eta asko ahalbide eta eskakizun objektiboen egoeran ekoiztea ahalbidetzen du; jokoaren hertsapenak eta eskakizunak, nahiz eta erregela-kode batean sartuta ez egon, jokoaren zentzua dutelako, hau da, jokoaren premia immanentearen zentzua duten horiei ezartzen zaizkie. Joko, prest daude ikusteko eta betetzeko» (1988: 71).

kontsentsuan oinarritutako osotasun bat sorrarazten da, zeinean dibertsitatea ezabatzen den. Beraz, ezberdintasun kulturalen izaera gatazkatsua ezabatzen du.

3.4. Subiranotasun ez-demokratikoa

Azaldu bezala, *politikotasunaren* defizita espazioaren gabezia bilakatzen da, gertakari hori «gorputzak eta adimenak eraikitzen dituen botere orokorrak» eragiten du. Baina «lekurik ezak globalki burmuin bat, bihotz bat, gorputz-enborra eta adarrak dauzka» (Hardt & Negri, *idem*: 232). Hala ere, mundu-mailan gertatzen den prozesu eraikitzaileak ez dauka leku zehatzik. Hardt eta Negri (idem: 342) espazio hibrido bat bezala identifikatzen dute; izan ere, inperioaren kontrol-funtzio hibridoak bertan exekutatzen dira. Puntu honetan lokarri bat suertatzen da, alabaina, eratzen diren erakundeak botereak eraikitzen dituen subjektibitateen mugimenduen arabera egokitu behar dira; zentzu horretan, administrazio inperialak gaurkotasunean sorrarazten diren mugimenduei erantzun ahal izateko konponbide mota ugari behar ditu.

Merkatu kapitalistak globalaren logika ahalbidetzen du. Honela azaltzen digute Hardt eta Negri (idem: 349): «Subiranotasun modernoaren transzendentziak kapitalaren immanentziarekin topo egiten du». Rousseauk subira-notasunari egindako ekarpenak ondo ulertuz gero, subiranotasunaren traszen-dentalitatea herriaren ahalmen demokratizatzailean aurkitzen da. Zentzu horretan, kapitalarentzat modernitatean eraikitako subjektu subiranoa, hau da, estatu moderno eta *politikotasunaren* isla den gizarte zibila oztopo bat da. Kapitalak gizarte zibilaren eta estatuaren arteko botere-harremanak aldatzeko beharra dauka; izan ere, interes kapitalisten garapena ezin daiteke bilakaera sozialak irekitzen dituen ustekabeko etorkizun ezberdinen menpekoa izan.

Hard eta Negri *Imperioren XV.* kapituluaren azalduetakoa kontuan harturik, kapitalak aurre egiten dion arazoa eta honi bilatzen dion irtenbidea oso ondo azaltzen dute. Kapituluaren esaten dutena modu honetara laburbil genezake: kapitalak bere interesak garatu ahal izateko bere neurrira eginiko subjektibitate bat behar du eta subjektibitate hori denboran suspentiduta dagoen, Arcosek gogora ekarri bezala, Althusserren *subjektu konstruktua* da. Era berean, subjektu hori Foucaultek deskribatzen duen kontrol-egitura diziplinarioetan konprimituta aurkitzen den heinean, politikaren dimentsio gatazkatsuak konpontzeko espazioak hutsalak dira. Hardt eta Negri aboradatzen duten erronka subjektu hau deskonprimitzearena¹² da; eta, bide horretan espazio berriak sortzearena. Izan ere, kapitalaren garapenak subiranotasun inperialaren forma behar du; hau da, beren burua kontrola dezaketen subjektibitate hibridoak.

4. Ondorioak

Aztertu bezala, Rousseauaren subiranotasuna ongi komuna egituratzen duen potentzia absolutua herria bera da; izan ere, interes orokorra inork baino hobeto definitzen du. Baina gaur egun ikusi da nola jendeak erabakitzeke ahalmena

12. Foucaulten hilarriari jarraituz.

eskuratu nahi duen; izan ere, eremu publikoa gero eta hustuago dago. Horretarako komuna zer den eta publikoa birdefinitzea beharrezkoa da, eta jendetza bide horretan laguntzen duen subjektua da.

Rousseauren aburuz, borondate orokorrak iradokitzen duena komunitatean ezartzeko beharrezkoa duen autoritatea herriaren eskutik eskuratzen du. Aldi berean, autoritateak borondate orokorrak agintzen duena egikaritu ahal izateko botere legitimo baten premia dauka. Zentzu horretan, autoritatea «ni komun» bat bezala aurkezten zaigu. Hau da, herriak bere burua estatu deitutako «ni komun» gisa eraikitzen du.

Estatuak soilik interes komun bat adieraz dezakeen heinean herriak interes horri, komuna den bitartean, obedituko dio. Hori horrela, herria interes komuna jakinaraztera ematen duenari besterik obeditzen ez dionean, subirano bihurtzen da. Izan ere, «ni komuna» aditzera ematen duena, borondate aktiboa herriaren mobilizazioaren bitartez ezagutaraztera ematen da; beraz, herria, estatuak «ni komun» bezala agintzen duenari obeditzerakoan, bere buruaz esandakoaren arabera arituko da.

Hori horrela, herriak praktikatzen duen subiranotasuna dela medio, entitate kolektiboa justiziak ezarritako zuzenbide batean alienatzen da. Era horretara, autoritatea justiziaren bitartez autoritate moral bilakatzen da; hor aurkitzen da Rousseauk proposatutako «ni komuna»ren botere guztia. Ikus dezakegun bezala, herriaren autoritatea autoritate moral bilakatzean, «ni komuna»ren autoritate bihurtzen da. Eta subiranotasuna borondate orokorrak agintzen duena ezartzeko autoritate bezala ulertzen baldin badugu, azken kasu honetan, subiranotasuna «ni komun»ean aurkitzen da.

Zentzu horretan, Rousseauk deskribatzen duen subiranotasuna momentu berean bi leku ezberdinetan aurkitzen dugu. Izan ere, pertsona publiko bezala estatua subjektu subiranoa da, baina, herriak, herritar aktiboei esker, subiranoa izaten jarraituko du. Orduan, hori gertatzean, autogobernuaren bitartez, herria eta «ni komuna» gauza bera izatera heltzen dira.

Hardt eta Negrirentzat, postmodernitatearen garaian subiranotasunak forma inperiala eskuratzen du. Izan ere, estatu-nazioen mugak ahultzean modernitate-garaian subiranotasun forma gailendu eta «herri-nazio-estatua» ezbaian jartzen da. Hori horrela, subiranotasun forma inperial berri baten beharra dago; ondorioz, paradigma aldatzera behartuta aurkitzen dira.

Paradigma-aldaketa hori boterearen logikatik aztertzen dute. Izan ere, bi autore horientzat kapitalaren indar immanenteak estatu-nazioen mugak lausotzea eragiten du. Hori horrela, subiranotasun modernoak eraikitako botere-aparatu transzendentalaren eta kapitalaren botere immanentearen arteko botere-harreman bat sorrarazten da.

Hardt eta Negri kapitalaren botere immanenteari botere inperiala deitzen diote, eta mugarik gabeko botere bezala definitzen dute¹³. Beraien ustez, botere inperialak

13. Zentrorik ez daukan botere hau deszentralizatuta eta lurraldez kanpo dago.

limiterik ez daukan logika espantsibo baten arabera funtzionatzen du; izan ere, eremu guztietara heltzeko zerumugari jarraitzen dio.

Beraz, modernitatean garatutako subiranotasunaren forma estatala ez bezala, subiranotasun inperialak, lehenengo hurbilpen batean, ez dauka kanpokotasunik; izan ere, dena barneratzen du. Era horretara, «ni komuna» ezbaian jartzearen ondorioz, subjektuarekiko independenteak diren egitura traszendentaletatik urruntzen da.

Autoreek ondorioztatuko dute botere inperiala biopolitiko delako. Eta horrek gizakien gorputzak zeharkatzen dituela; izan ere, bizitza soziala barrenetik arautzen du. Hori horrela, bioboterea bizitza barrutik kontrolatu eta arautu egiten duen autoritate subiranoa da. Hala, bada, botere inperial biopolitikoak, *habitus*-ak erantsiz, subjektibitate berri bat sortzen ahalegintzen da.

Hardt eta Negrirentzat, subiranotasun inperialak hibridoa den espazio zehatzik ez izatearen ondorioz, *politikotasunaren* defizit bat gertatzen da. Izan ere, komuna-publikoa-pribatua, nahastuta, definitu gabe daude¹⁴. Beraz, subiranotasun inperiala ez da demokratikoa; izan ere, kapitalaren indar immanenteak bere neurrirra eginiko subjektibitate hibrido bat behar du, ez, ordea, herria bezalako subjektu burujabe bat.

1. taula konparatiboa

Gauza komunaz arduratzen den subjektu burujabeak nola ezugarritzen du subiranotasuna? Eta, horren beharrik ez duen jendetzak?	
ROUSSEAU	HARDT & NEGRI
<ul style="list-style-type: none"> – Borondate orokorrak agintzen duena ezartzeko botere legitimoa – Botere legitimoa autoritate bilakatzean justiziaren bitartez autoritate moral bihurtu – Subiranotasuna aldi berean herrian eta estatuan egonda, beraien arteko komunikazioari esker, bizitza soziala era demokratikoan ordenatu 	<ul style="list-style-type: none"> – Kapitalak agintzen duena ezartzeko botere inperial biopolitikoak – Botere biopolitikoak moralik gabeko autoritate bilakatu – Subiranotasun inperiala, kontrol-mekanismoen bitartez, bizitza soziala modu ez demokratikoan ordenatu

Iturria: Lanketa propioa.

Bibliografia

- Arcos, I. (2017): «Cartografías políticas del yo: más allá del sujeto soberano y del sujeto constructo en la teoría política contemporánea», *Política y Gobernanza. Revista de Investigaciones y Análisis Político*, 1, 31-52. Iturria: <<https://revistaseug.ugr.es/index.php/polygob/article/view/6317>> (Azken kontsulta: 2020/02/03).
- Althusser, L. (1967): «Materialismo dialéctico y materialismo histórico», *Pensamiento Crítico*, 5, 3-25, Habana. Iturria: <<http://www.filosofia.org/rev/pch/1967/pdf/n05p003.pdf>>

14. Subiranotasun inperialak Spinozak azalduko zirela bezalako moduan, biopolitikoaren bitartez, bizitza komunean borrokatuz hustutako espazio publiko batean bere autoritatea ezartzen du.

- (Azken kontsulta: 2020/02/18).
- Bobbio, N. (1987): *La teoría de las formas de gobierno en la historia del pensamiento político*, FCE, Mexiko.
- Bolívar, A. & Cuélla, Ó. (2008): «La república legítima y el orden político en Rousseau: principios de composición e imagen del estado de equilibrio», *Revista polis*, 7(20), 239-260. Iturria: <<https://scielo.conicyt.cl/pdf/polis/v7n20/art13.pdf>> (Azken kontsulta: 2018/12/03).
- Bourdieu, P. (1988): *Cosas dichas*, Gedisa, Bartzelona.
- Caballero, F.J. (1986): *Naturaleza y derecho en Jean Jacques Rousseau*, EHU, Bilbo.
- Dreyfus, H.L. & Rabinow, P. (1983): «El sujeto y el poder», in *Michel Foucault: más allá del estructuralismo y la hermenéutica*, Chicago University Press, 241-261.
- Foucault, M. (1979a): «Poder-cuerpo», in *Michel Foucault: Microfísica del poder*. Itzultzaileak: Julia Varela eta Fernando Alvarez-Uría, La Piqueta, Madril, 103-111.
- , (1979b): «Las relaciones de poder penetran en los cuerpos» in *Michel Foucault: Microfísica del poder*. Itzultzaileak: Julia Varela eta Fernando Alvarez-Uría, La Piqueta, Madril, 153-163.
- , (1994): «El panoptismo», in *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madril, 199-230.
- García, R. (2012): «El que quiere el fin quiere los medios. Naturaleza humana y republicanismo en Maquiavelo y Rousseau», *EN-CLAVES del pensamiento*, 6(12), 111-131. Iturria: <<https://www.redalyc.org/pdf/1411/141125359001.pdf>> (Azken kontsulta: 2018/12/03).
- Gonzalez, J.A. (1980a): «Kant y el Estado de Derecho», in *Teoría del estado y derecho constitucional*, Vicens-vives, Bartzelona, 112-115.
- , (1980b): «Rousseau y la soberanía popular», in *Teoría del estado y derecho constitucional*, Vicens-vives, Bartzelona, 142-150.
- , (1980c): «El origen del poder constituyente», in *Teoría del estado y derecho constitucional*, Vicens-vives, Bartzelona, 210-211.
- Hardt, M. & Negri, A. (2018): *Imperio*; Paidós Surcos, Bartzelona.
- Held, D. (2007a): «El republicanismo: La libertad, el autogobierno y el ciudadano activo», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 57-92.
- , (2007b): «El fin de la política y concepciones rivales del marxismo», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 162-180.
- , (2007c): «¿El último vestigio de la democracia? Democracia, capitalismo, y socialismo, Democracia clásica versus democracia moderna, Una visión tecnológica», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 205-227.
- , (2007d): «Democracia, capitalismo corporativo y estado», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 245-249.
- , (2007e): «Ley, libertad y democracia, Participación, libertad y democracia», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 289-310.
- , (2007f): «Autonomía democrática», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 365-406.
- , (2007g): «La legitimidad democrática y las fronteras, Los intercambios regionales y mundiales: lo viejo y lo nuevo, Soberanía, autonomía y disyuntivas», in *Modelos de democracia*, Alianza, Madril, 409-427.
- Kohan, N. (2003): «El imperio de Hardt y Negri: más allá de modas, ondas y furores», in Atilio A. Borón, *Filosofía política contemporánea. Controversias sobre civilización, imperio y ciudadanía*, CLACSO, Buenos Aires 321-339. Iturria: <<http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20100603011328/21kohan.pdf>> (Azken kontsulta: 2019/07/04).
- Mc Donnell, C. (2013): «Rousseau y Schmitt: Voluntad general y decisión soberana», *IX*

- Jornadas de Investigación en Filosofía*, Universidad Nacional de La Plata. Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, Departamento de Filosofía, La Plata. Iturria: <<https://www.academica.org/000-056/89>> (Azken kontsulta: 2018/12/01).
- Mondolfo, R. (1967): *Rousseau y la conciencia moderna*, EUDEBA, Buenos Aires, 29-132.
- Molina, E. (2017): «El pensamiento político de Antonio Negri: ¿Renovación marxista o regeneración ecléctica?», *Revista internacional de pensamiento político*, 12, 507-520, Universidad Pablo de Olavide, Sevilla. Iturria: <<https://www.upo.es/revistas/index.php/ripp/article/view/3251>> (Azken kontsulta: 2019/07/04).
- Moreau, J. (1977): *Rousseau y la fundamentación de la democracia*, Espasa-Calpe, Madril.
- Nascimento, M. (2012): «Soberanía, poder e biopolítica: Arendt, Foucault e Negri», *Griot Revista de filosofía*, 6(2), 152-169, Rio de Janeiro. Iturria: <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6630060>> (Azken kontsulta: 2019/07/05).
- Pollitzer, M. (2013): «El rol de las pasiones en las sociedades democráticas, un diálogo entre Rousseau y Tocqueville», *Prismas, revista de historia intelectual*, 17, 31-48. Iturria: <<http://revistas.bibdigital.uccor.edu.ar/index.php/Prueba2/article/viewFile/1345/1306>> (Azken kontsulta: 2018/12/03).
- Rodríguez, J.M. (1999): *Sobre la democracia de Jean-Jaques Rousseau*, DYKINSON, Madril.
- Rousseau, J.J. (1993): *Gizarte hitzarmena*. Klasikoak bilduma, Bilbo. Iturria: <<https://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/?f=48>>.
- , (1999): *Discurso sobre el origen de la desigualdad entre los hombres*, Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, Alacant. Iturria: <<http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmc89137>> (Azken kontsulta: 2019/07/05).
- , (2007): *Gizakien arteko desberdintasunaren jatorri eta oinarri buruzko mintzaldia*, EHU, Bilbo.
- , (2011): *Discursos sobre la economía política*, Maia Editores, Madril.
- , (2018): *El contrato social*, Libsa, Madril.
- Rubio-Carracedo, J. (1987): «Democracia y legitimación del poder en Rousseau. Democracia avanzada versus representación pública», *Revista de Estudios Políticos (nueva época)*, 58, 215-242, Madril.
- , (2000): «Rousseau y la democracia republicana», *Revista de Estudios Políticos (nueva época)*, 108, 245-272, Madril.
- , (2005): «La ley-Rousseau de entropía de las instituciones democráticas y la necesidad de la educación cívico-política para neutralizarla», *Revista de Estudios Políticos (nueva época)*, 128, 5-28, Madril.
- Rush, A. (2003): «La teoría posmoderna del Imperio», in Atilio A. Borón, *Filosofía política contemporánea. Controversias sobre civilización, imperio y ciudadanía*, CLACSO, Buenos Aires, 285-303. Iturria: <<http://biblioteca.clacso.edu.ar/gsdll/cgi-bin/library.cgi?e=d-11000-00---off-0clacso-00-1----0-10-0---0---0direct-10---4-----0-0l--11-es-Zz-1---20-about---00-3-1-00-0--4----0-0-01-00-OutfZz-8-00&a=d&c=clacso&cl=CL4.9&d=D865#>> (Azken kontsulta: 2019/07/04).
- Peña, E.J. (1995): «Rousseau y la idea de comunidad política», *ISEGORÍA Revista de filosofía moral y política*, 11, 126-143. Iturria: <<http://isegoria.revistas.csic.es/index.php/isegoria/article/view/257>> (Azken kontsulta: 2018/12/01).
- Viguera, A. (2002): «La revolución revisitada: Debates en torno a Imperio, de Michel Hardt y Toni Negri», *Sociohistórica*, 11-12, 221-241. Iturria: <http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/art_revistas/pr.3069/pr.3069.pdf> (Azken kontsulta: 2019/11/26).

